

lagin biologikoak
prestatzea, garraiatzea eta
segurtasunez bidaltzea

21

INFORMAZIO-GIDA



SARRERA

Lagin biologikoen garraio eta harrerek eragindako infekzioei egotz dakizkiekeen gaixotasun-kasuak oraindik deskribatzeko dauden arren, ezar daitezke segurtasun-gomendio batzuk prozesu horretan esku hartzen duten langileak babesteko, enbalaje akastun, hondatu edo zikinen erabilpena saihesteko, horrek arriskuak sortzen dizkie-eta haiei.

Garrantzi handia du bidali beharreko lagin biologiko bat prestatzen duen langilearen, lagin hori garraiatzen edo bidaltzen duen langilearen eta hartzen duen langilearen arteko prozesua koordinatuta egoteak, horrela lagin biologikoaren paketea edo edukiontzia prozesuaren fase desberdinetan egoera onean dagoela eta inolako arriskurik ez duela segurtatzeko.

Informazio-gida honen edukiak bereizi egiten ditu:

- Donostia Ospitaleko hainbat zerbitzutan kanpoko zentroetara bidaltzeko lortutako barneko lagin biologikoak.
- Ospitalearen barneko beste zerbitzu batera bidaltzen diren barneko lagin biologikoak.

Bi kasu hauetan, lagin biologikoa prestatu, garraiatu edo bidali eta hartzeko osasun-zentroaren instalazioen barnean egindako lanak sartzen dira.

- Ospitaleaz kanpoko enpresa, zentro eta erakundeek bidalitakoak direla adierazita daukaten eta bertan hartzen diren kanpoko lagin biologikoak.

PROZESUA

I. BARNEKO LAGIN BIOLOGIKOAK.

A.- Lagin biologikoaren prestaketa, leku hauetakoren batera garraiatu edo bidaltzeko:

- A.1.- Biltegi orokorreko zerbitzura, gero handik ospitaleaz kanpoko zentroetara bidaltzeko.
- A.2.- Ospitaleko beste zerbitzuetara.

B.- Lagin biologikoa Ospitaleko instalazioetatik barrena garraiatu edo bidaltzea.

- B.1.- Eskutik eskura.
- B.2.- Hodi pneumatikoaren bidez.

C.- Ospitaleko bertako zerbitzuetatik datorren lagin biologikoa bertako beste zerbitzuetan (biltegi orokorrean, laborategietan, etab.) hartzea.

2.- KANPOKO LAGIN BIOLOGIKOAK

Ospitaleaz kanpoko instalazioetatik datorren lagin biologikoa hartzea.

ARRISKU ELKARTU NAGUSIAK

Prozesu guztian:

Hainbat bideetatik sartzeko arrisku biologikoa. Garrantzitsuenak larruazal bidezkoa eta bena bidezkoa izango lirateke, lagina daukan ontziarekin kontaktuan egotea, puskatzea, edukia isurtzea, ziprztintzea, etab. bezalako gertakarien ondorioz.

Agente biologikoa sakabanatu edo zabaltzea.

PREBENTZIO-NEURRIAK

I.- BARNEKO LAGIN BIOLOGIKOAK.

A.- LAGIN BIOLOGIKOAREN PRESTAKETA, BIDALI EDO GARRAIATZEKO

Lagin biologikoa prestatzeko arau orokorrak

- **A.1.- Biltegi orokorreko zerbitzura, gero handik ospitaleaz kanpoko zentroetara bidaltzeko**
 - **Segurtatu horretarako behar den materiala daukazula** (itxiera hermetikodun poltsak, zorroak, kartutxoak, hodiak, etab.). Bidali beharreko laginaren tamaina egokiko edukiontzia erabili. Horiek biltegi orokorrean lor daitezke.
 - Prestatu lagina bidaltzeko: **itxi bere edukiontzia** eta garbitu horren kanpoalde guztia, hondar posible oro ezabatzeko.
 - **Identifikatu lagin** biologikoa: edukia, etab.
 - Segurtatu lagin biologikoa ontziki egoki batean eta ondo itxita dagoela.
 - Ekipamendu ebakitzaila edo zulatzaileraren batean hartutako lagin biologikoak direnean, EZ IPINI BERRIRO KAPUTXA; ziztatu orratza materialen batean.
 - **Babestu lagin** biologikoak enbalatzeko materialarekin: zorro, zapi, etab.ekin, eta itxiera hermetikoa duen poltsa batean sartu. Ez sartu poltsan eskaera-dokumenturik.
 - **Sartu** hori guztia bidaltzeko **azken ontzikian**, edukiontzi zurrunean. Segurtatu material hori egoera onean dagoela. Erabili aurretik, emaiozu begiratu on bat.
 - **Itxi edukiontzia**. Egiatzatu ondo itxita dagoela.
 - Identifikatu, etiketa baten bidez, arrisku biologikoaren piktograma eta zein zerbitzutatik irteten den eta zeinetara joan behar duen.
 - Segurtatu paketea bidaltzeko prest eta odol-orban, etab.ik gabe dagoela.



BIOLOGIKOA

● **A.2. Donostia Ospitaleko beste zerbitzuetara**

Lagin biologikoa garraiatu edo bidal daiteke hodi pneumatikoaren bidez edo eskutik eskura.

● **A.2.1.- LAGIN BIOLOGIKOA ESKUTIK ESKURA GARRAIATZEA**

- **Segurtatu horretarako behar den materiala daukazula** (erretilu tapadunak, edukiontziak, tentegailuak, zorro babesleak, etab.).
- Egoera onean dagoen materiala erabili. Azken begiratu on bat eman.
- ITXIERA HERMETIKOA DUTEN ONTZIETAN BAKARRIK bidaliko dira lagin biologikoak. Egiaztatu beti ontzikiaren hermetikotasuna.
- Identifikatu lagina.
- Lagin biologikoa daukan ontzia bakarrik sartu erretiluan, edukiontzian..., aurretik itxiera hermetikoko poltsan jarrita. Ez sartu poltsan eskaera-dokumenturik.

● **A.2.2.- HODI PNEUMATIKOAREN BIDEZKO BIDALKETA**

- **Segurtatu horretarako behar den materiala daukazula** (poltsak, zorroak, kartutxoak, etab.).
- Egoera onean dauden kartutxoak erabili. Horrelako bat erabili behar duzun bakoitzean begiratu on bat eman (egoera orokorra eta muturrak inguratzen dituen zinta), eta aldatu egoera txarrean daudenak.
- Prestatu lagina bidaltzeko: **itxi bere edukiontzia** eta garbitu horren kanpoalde guztia, hondar posible oro ezabatzeko.
- ITXIERA HERMETIKOA DUTEN ONTZIETAN BAKARRIK bidaliko dira lagin biologikoak. Egiaztatu beti ontzikiaren hermetikotasuna.
- **Identifikatu lagina.**
- Lagin biologikoa daukan ontzia bakarrik sartu itxiera hermetikodun poltsan. Eskura dezakezu biltegi orokorrean. Ez sartu poltsan eskaera-dokumenturik.
- Hori guztia kartutxoaren babes-zorroaren barnean egokitu behar da.
- **Segurtatu kartutxoaren itxiera-sistema.**

NBEak eta higiene-arauak

- **Garbitu eskuak**, bidali beharreko lagin biologikoa prestatzen hasi aurretik eta ondoren.
- **Erabili eskularruak** lagin biologikoak manipulatzeko.
- **Babestu itzazu zauriak eta ebakiak.** Lanean hasi aurretik, babestu itzazu beti eskuetako larruazaleko lesioak eta gainerakoak apositu iragazgaitzekin (tirita modukoekin).
- **Ez erabili eraztun, bitxi** eta horrelakorik.

Debekuak

- **Ez bete gehiegi eta ez kargatu gehiegi bidalketa**, baliteke-eta, bestela, behar bezala ez ixtea eta garraio-garaian irekitzea.
- Gogoratu hodi pneumatikoan erabilitako kartutxoaren edukiera 800 gramokoa dela. **Errespeta ezazu.** Hori gehiegi kargatzeak sor baitezake istripuren bat.
- **Ez bidali edo entregatu** biltegi orokorrean ez beste zerbitzuetan **lagin biologikorik** zuzenean eta aurretik prestatu gabe, hau da, **babestu gabe.**
- Ez entregatu odolez edo bestelako jariakinez orbandutako bidalketarik.

B.- LAGIN BIOLOGIKOA OSPITALEKO INSTALAZIOETATIK GARRAIATU EDO BIDALTZEA

● B.1.- Eskutik eskura

- **Segurta ezazu azken edukiontzia garbi dagoela, eta adierazten direla bidaltzailea eta hartzailea ere.**
- Paketeak puskatutako edo jariakinez orbandutako materialen bat eduki dezakeela antzemango bazenu, jakinaraz iezaiozu gainbegiraleari edo zerbitzu igorleko gainera arduradunari, hondakin biologikoa bezala trata dezaten.
- Paketea biltegitirako **garraio garaian puskatu, isuri, etab. egingo balitz, babes zaitetz eskularruekin, eta jaso ezazu,** eta jakinarazi zerbitzu igorleari, tratamendu egokia eman diezaion.
- Helburuko zerbitzuan lagin biologikoak hartzeko arlo espezifiko bat egongo da. Arlo horretan entregatu behar duzu paketea.

● B.2.- Hodi pneumatikoaren bitartez

- **Fabrikatzailearen aginduak zorrotz-zorrotz jarraitu,** ezarritako ordenan:
- TELECOM instalaziorako, hauek dira agindu horiek:
 - Kartutxoa behar bezala itxi.
 - Programatu zein zenbakiko helburutara bidali nahi duzun.
 - Ireki “geltokiko” atea, eta ipini barruan kartutxoa.
 - Itxi ondo atea (kolperik eman edo behartu gabe)
- SDS instalaziorako, hauek dira aginduak:
 - Kartutxoa behar bezala itxi.
 - Markatu zein zenbakiko helburutara bidali nahi duzun.
 - Ipini kartutxoa hodiaren barruan.

Debekuak

- **Ez entregatu** biltegian **lagin biologikorik** zuzenean eta aurretik bidaltzeko prestatu gabe, hau da, **babestu gabe.**
- **Ez eraman uniformearen patriketan lagin biologikorik daukan paketerik, eta ezta eskuetan ere zuzenean.**
- Ahal izanez gero, **garraiatzeko ekipamenduak erabili:** orgak, edukiontzi heldulekudunak, erretilu tapadunak, etab.
- Ez bidali inoiz hodi pneumatikotik:
 - Likido zefalorrakideorik.
 - Orratzik daukan laginik.
 - Formolean dagoen laginik.
 - Produktu kimikorik.
 - Zitostatikorik.
- Erabili hodi pneumatikoa behar denerako, eta ez bidali horren bidez janaririk, etab.ik



C.- OSPITALEKO BERTAKO ZERBITZUETATIK DATORREN LAGIN BIOLOGIKOA BERTAKO BESTE ZERBITZUETAN HARTZEA.

- **Lehenengo eman begiratu bat** bidalitako paketearen egoerari. Egiatzatu garbi eta behar bezala etiketatuta dagoela (zerbitzu bidaltzailea, arrisku biologikoa adierazten duen piktograma, hala balitz, etab.).
- Edukiontzi bat, kartutxo bat, etab. odolez edo bestelako jariakinez orbanduta daudenean, jar zaitez harremanetan zerbitzu bidaltzailearekin, erretira dezan eta tratamendu egokiagoa eman diezaion. Hondakintzat jotzen bada, hondakin biologikoen modura ezabatuko da, hondakin infekziosoei buruzko zentroko arauen arabera.

Debekuak

- Ez aldatu instalazioko elementuak: adib., erretilu bat hodiko irteeran jartzeak eragin dezake kartutxoa edo edukia haustea eta/edo hondatzea.

2. KANPOKO LAGIN BIOLOGIKOAK

A.- OSPITALEAZ KANPOKO INSTALAZIOETATIK DATORREN LAGIN BIOLOGIKOA HARTZEA.

- **Lehenengo eman begiratu bat** bidalitako paketearen egoerari. Egiatzatu garbi eta behar bezala etiketatuta dagoela (bidaltzailea, arrisku biologikoa adierazten duen piktograma, etab.).
- Edukiontzi bat odolez edo bestelako jariakinez orbanduta dagoenean, jar zaitez harremanetan bidaltzailearekin edo hartzailearekin, erretira dezan. Sar ezazu ontzi edo edukiontzi batean, gai zikina bezala identifikatuz eta gainerakoetatik bereizita.
- Bidaltzaileak edo hartzaileak erretiratzen duenean, eman iezazkiozu seguru bidaltzeko arauak.

Lagin biologikoak bidaltzeko garaian, bidaltzeko prestatzeko garaian, garraiatzerakoan edo bidali eta hartzerakoan **gorabeherarik/istripurik gertatzen denean:**

Jo Laneko Osasun Zerbitzura (POUra) edo larrialdietara, ebaki, ziztada, ziprintin, isuri, etab. bezalakorik gertatzen denean.